

قافلة بين سينمائيات

# ZINEMAGILEEN 2024

## ARTEAN

Emakumeek egindako zinema  
13. Karabana

Maiatzaren 27tik 31ra



Golem Zinemak

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao

Saioak 17:00 / 19:00 / 21:30

Sarrerek 3€

+INFO



[www.kcd-ongd.org](http://www.kcd-ongd.org)

**KCD**  
Kultura, Komunikazioa eta Ongarria  
ONGD  
[www.kcd-ongd.org](http://www.kcd-ongd.org)

**CINE INVISIBLE**  
FESTIVAL INTERNACIONAL  
FILM SIDAIAK 2024 - BILBO

**E** GARAIPENERIK  
LANGETZAREN  
ERDIAL AGENZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACION PARA  
EL DESARROLLO

**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO  
EUSKAL GOBIERNUA  
GOVERNMENT OF THE BASQUE COUNTRY  
GOVERNMENT OF THE BASQUE COUNTRY

**Bizkaia**  
Euzko lurraldea  
Euzko lurraldea

**klaketa**  
arabe  
arabe

**golem alhóndiga**

**AZKUNA**  
ZENTROA  
ALHONDIGA  
BILBO

**OHABIAN**

**ap**

**ap**

# "ZINEMAGILEEN ARTEAN"

## 13. KARABANA

Duela hilabete pare bat, karabana berri hau prestatzen hasi ginenean, beren lurraldean emakumeen zinema garatu eta sustatzen duten emakume palestinarren elkarte baten berri izan genuen. Primerakoa izango zen haiek Bilbon izatea. Hala ere, Israelek Gazan egindako erasoen ondorioz, emakume horietako batzuk hil egin dira, baita haien senide ugari ere, eta haien ekipo asko suntsituta daude. Munduko herrialde guztietan dago genero-desberdinkeria, baita bake-garaian ere; beraz, ondo imajina dezakegu nolakoa den gerra-testuingurueta.

Zorionez, Bilboko Karabanan, **Lina Soualem** zuzendari palestinarra izango da, eta bere familiako emakume palestinarren patu asaldatua islatzen duen *Bye Bye Tiberias* dokumental saritua aurkeztuko digu. Horrez gain, Kosovoko **Luàna Bajrami** zuzendariak kontatutako istorioa ezagutuko dugu: 2000. urteko Kosovoko gazterien erretratu ona, independentzia lortzear dagoen herrialde batean beren nortasunaren bila dabilzan neska eta mutil unibertsitarioen gorabeherak kontatzen dituenena. **Tessa Leuwsha** zuzendari herbeheretarrak bere amonarengan inspiratutako dokumental ikusgarri bat dakarkigu: gura-soek, ama zuriak eta aita beltzak, Herbehereetako Surinam kolonia ohian adopzioan eman ostean etxe-esklabu gisa hazi zen garbitzaile baten historia. **Asmae El Moudir** zinemagile eta gidoilari marokotarrak istorio satiriko eta hunkigarri bat dakarkigu, 1981eko Marokoko Biziraupeneko Matxinaden zorigaiztoko gauaren berri ematen

duena. Eta, ostiralean, **Léa Fehner** zuzendari frantsesaren fikziozko maisu-lan batekin amaituko dugu. Frantziako osasun-arretako sistema eskas eta arazoz betean bi emaginek ospitalean dituzten erronkak erakutsiko dizkigu.

Azpimarratu beharra dago, era berean, **Itxaso Díaz** euskal zinemagileak eta **EHNE-Bizkaia** sindikatuko emakumeek elkarlaneko lan bat aurkeztuko dutela Karabana honetan, «Zaintzen duten emakume baserritarrak» izenburuarekin.

Ildo horretan, **Amaia Goikoetxea**, **Alicia San Juan**, **Teresa Aguiló** eta **Adela Úcar** kazetariak elkarrizketak egingo dizkiete, zineforumetan, zinemagileari eta EHNE-Bizkaiko emakumeei. Emakumezko profesional horiek ikuspegi berezia eskainiko dute filmak eman ondorengo solasaldietan, eta eztabaida interesgarriak sorraraziko dituzte filmen inguruko hainbat alderdiri buruz, hala nola haien garrantzi sozialari eta eragin kultural zein artistikoari buruz. Jarduera horretarako, Euskal Kazetarien Elkarte eta Kazetarien Euskal Elkargoa izan ditugu laguntzaile.

Kultura Communication y Desarrollo GGKEak (KCD ONGD), Klaketa Árabe ekoiztetxearekin batera, zinema sozialeko zuzendari nabarmenen ikuspuntuaren bidez begiratzeraz gonbidatzen ditu ikusleak 13. Karabanan, eta mugak gainditu eta ikuspegi berriak irekiko dituzten naratibak aztertuko dira.

Hautsi zinemaren kristalezko sabaia!

J. Carlos Vázquez Velasco

*Zuzendaria*

Kultura Communication Desarrollo "KCD" GGKE

Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren Nazioarteko

Jaialdia

# "ZINEMAGILEEN ARTEAN" 13. KARABANA

**Egunak:** Maiatzaren 27tik 31ra

**Lekua:** Golem zinemak-Azkuna Zentroa-Bilboko Alhondegia

**Saioak:** 17:00 / 19:00 / 21:30

**Prezioa:** 3,00 € saioko

## EGITARUA

27 ASTELEHENA

17:00, 19:00, 21:30



**19:00. Gonbidapena dutenentzako saioa**

Eskatu hemen: [www.kcd-ongd.org](http://www.kcd-ongd.org)

[info@kcd-ongd.org](mailto:info@kcd-ongd.org)



KCD GGKEk aurkeztutako saioa, Lina Soualem zuzendari palestinarrekin eta Amaia Goikoetxea Marquésekin, Kazetarien Euskal Elkargoko eta Kazetarien Euskal Elkarteko dekanoa eta presidentea.

\* Keinu-hizkuntzako interprete-zerbitzua egongo da.

- **BYE BYE TIBERIAS. Lina Soualem**

Dokumentala. Palestina, Frantzia, Belgika, Qatar, 2023, 82 min. Jatorrizko bertsioa frantsesez eta arabieraz; azpituluak gaztelaniaz.

*Sekzio ofizialetarako sailkatuta zinemaldi hauetan: 2024: Dublingo Nazioarteko Zinema Jaialdia. 2023: BFI London*

*Film Festival – Dokumentalik onenaren Grierson saria. Montpellier Mediterranean Film Festival (Cinemed) – Dokumentalik onenaren Ulysses saria. Marrakech International Film Festival – Epaimahaiaren saria. Premio internazionale efebo d'oro – Michele Mancini saria. FIFAM - Festival International du Film d'Amiens - Amiens (Frantzia) – Ikusleen saria.*

Frantzian aktore izateko Palestinako bere herria utzi eta urte batzuetara, Hiam Abbass etxera itzuli da alabarekin, emakumeen lau belaunaldi eta haien banantze-ondare komunari buruzko dokumental intimo honetan.

**28 ASTEARTEA**

**17:00, 19:00, 21:30**



**19:00. KCD GGKEk aurkeztutako saioa, Itxaso Díaz zinemagilea eta Amets Ladislao, Raquel Garcia Márquez eta Idoia Etxebarria, EHNE Bizkaia taldekoak.**



**“Zaintzen duten emakume baserritarak” foroa, Alicia San Juan kazetariak dinamizaturik, Kazetaritzan lizentziatua da EHUan, eta bere ibilbidearen zati bat Radio Euskadiko irratian eta telebistan gauzatu du. Gaur egun, asteburuko ‘Más Que Que Palabras’ magazineko taldeko kide da.**

\* Keinu-hizkuntzako interprete-zerbitzua egongo da.

#### **ZAINTZEN DUTEN EMAKUME BASERRITARRAK**

Dokumentala. Euskadi, 2024, 6 min. Jatorrizko bertsioa euskeraz, gazelaniaz. Azpтитuluak: euskaraz partziala, gaztelaniaz partziala.

Durungaldeko baserritarrak diren emakume hauen birtartez, Euskal Herriko zaintza eta elikadura subiranotasunaren aldeko proposamena partekatzen da.

- **PHANTOM YOUTH. Luàna Bajrami**

Fikzioa. Kosovo, Frantzia, 2023, 94min. Jatorrizko bertsioa albanieraz; azpigituluak gaztelaniaz.

*Sekzio ofizialetarako sailkatuta zinemaldi hauetan: 2023: Veneziako Zinema Jaialdia – Filmik onenaren kategoriarako izendatua.*

Kosovo, 2007. Zoé eta Volta beren urrutiko herritik irten eta Pristinako Unibertsitatean sartu dira. Tentsio sozial eta politikoen erdian, bi emakumeek krisian dagoen herrialde bat aurkitzen dute, independentziaren bezperatan bere nortasunaren bila dabilena eta gaztetasuna ahaztu zaiona.

29 ASTEAZKENA

17:00, 19:00, 21:30



**19:00. KCD GGKEk aurkeztutako saioa eta zooma Surinameko Tessa Leuwsha zuzendariarekin.**

\* Keinu-hizkuntzako interprete-zerbitzua egongo da.

- **MOTHER SURINAME-MAMA SRANAN. Tessa Leuwsha**

Dokumentala. Herbehereak, Surinam, 2023, 71 min. Jatorrizko bertsioa nederlandera; azpigituluak gaztelaniaz.

*Sekzio ofizialetarako sailkatuta zinemaldi hauetan: 2023: Amsterdam International Documentary Film Festival – Aipamen berezia: Best Dutch Film.*

Narrazioaren eta kantuaren bidez, pentsamolde sendoko emakume batek Surinam aldakor batean izandako bizitza errepasatzen du, koloreztatutako artxibo-irudi paregabe eta liluragarrien laguntzarekin. Tessa Leuwsha zuzendariaren amonaren bizitzan oinarritutako filma.

**19:00.** KCD GGKEk, Nieves Marotok, *Me lo Creo* SLko ekoizleak eta *CIMA IMPULSA* enpresako zuzendariak, eta Alba Sánchez Saura, *Begin Again Films* produkzio-etxe**ko** bazkide eta sormen-zuzendariak, aurkeztutako saioa.



**“Zinea aro digitalean, erronka edo beste aukera bat emakume zinemagi-leentzat” foroa, Teresa Aguiló**k dinamizatu**a.** *TVEko Telenorte* albistegiaren erredaktore eta aurkezlea da egun, *Informe Semanal* eta *En Portada* saioetarako erreportajeak egitearekin bateratzen duen lana, gizarte gaiei eta terrorismoarekin lotutakoei buruz.

\* Keinu-hizkuntzako interprete-zerbitzua egongo da.

• **THE MOTHER OF ALL LIES. Asmae El Moudir**

Dokumentala. Maroko, Saudi Arabia, Qatar, 2023, 97 min. Jatorrizko bertsioa arabieraz; azpтитuluak gaztelaniaz.

*Sekzio ofizialetarako sailkatuta zinemaldi hauetan: 2023: Canneseko Zinema Jaialdia – Zuzendaritzarik onenaren Un Certain Regard saria. 2 izendapen. Independent Spirit Awards sariak – Film luze dokumentalik onenaren sarirako izendatua. Ekoizleen Sindikatuaren Sariak (PGA) – Dokumentalik onenaren saria.*

Familia baten gezur-sareari eta neska gazte batek egia-  
ren bila egiten duen ikerketari buruzkoa da. Asmaek —  
alaba eta ekoizlea— zuzenean kontaktzen ditu, historia  
nazionaletik historia pertsonalera abiatuta, 1981eko Ma-  
rokoko Biziraupeneko Matxinadak.

**19:00. KCD OGGKEk, Lucía Alonso Garridok (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko emagina) eta Janire Miranda Bárcenak (Ezkerraldea Enkarterri Gurutzetako emagina) aurkeztutako saioa.**



**Adela Úcar kazetariak dinamizatutako foroa:** *Gizarte-, ingurumen- eta emakume-gaietan espezializatua, 21 Días programaren aurkezlea izan zen Cuatro katean besteak beste. Gaur egun, Reduce tu huella, ingurumenaren inguruko saioa aurkezten du La2-en.*

\* Keinu-hizkuntzako interprete-zerbitzua egongo da.

• **SAGES-FEMMES. Léa Fehner**

Fikzioa. Frantzia, 2023, 99 min. Jatorrizko bertsioa frantsesez; azpitoluak gaztelaniaz.

*Sekzio ofizialetarako sailkatuta zinemaldi hauetan: 2023: Sevilla Zinema Jaialdia – Filmik onenaren Giraldirlo de Oro sarirako izendatua. Gijóngo Zinema Jaialdia – Epaimahai gazteen saria Film luzerik onenaren kategorian. 2 izendapen. Panorama saria Berlingo Nazioarteko Zinema Jaialdian.*

Sofia eta Louise, emaginen lanbide noblean graduatu berriak, ilusioz eta itxaropenez betetako mundu batean sartzen dira. Hala ere, osasun-arretako sistema eskasa da eta arazoak ditu, eta ospitaleko eguneroko errealitateak agerian jartzen ditu osasun-sistema horren erronkak. Emagin gazteek, beren bokazioa betetzeko borrokan, ausardiaz eta errukiz jokatu behar dute, ingurune korapilatsu eta sarritan bihozgabe batean sortzen diren oztopoei aurre egiteko.